BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
550. zkia.
XIII. urtea
2005eko azaroaren 11a



## Arima Beltza

# *Mundurako ateak zabaltzen*

[ KILIBARREN ] ANTON URREISTI • [ KIROLA ] ALBERTO IÑURRATEGI

# ASKETA
## ERREFORMAK. S.L.

Maxpe, 3 behea - 20820 DEBA
Tel.: 943 19 19 52 - Faxa: 943 19 24 60
E-posta: asketa@telefonica.net
www.asketa-reformas.com

Aht.
DEKORAZIOA

Santa Klara, 26
ELGOIBAR
Tel.: 943 74 15 52
606 43 11 19
606 43 11 20
www.blokdekorazioa.com
biokdekorazioa@euskalnet.net

**Espezialistak gara fatxada eta teilatuak errehabilitatzen**
**Gehienezko kalitatea prezio onenean**

J.D urteko bermea
gure lan guztietan!



Altzolako bain uetxea
Valentine-n Valastic erabiliz margotua

Erreforma egin aurretik



**Valentine** **Fatxaden linean liderrak**

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!**



# GURE IPPATIA BIIIEGURUTZEAM!

GURE ERRONKA:
EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN

GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPERA DAUKA B1HAR EUSKARA BIZI DAD1N LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN

**Lapurdiko Herri Irratiak bere 23 urteko ixtorian**
**aldaketa nagusia biziko du aurten:**
**lokal berri bat eraikitzera doa**
**eta zure laguntza baitezpadakoa du.**

Ipar Euskal Herria euskara desagertzea onartzen ez dugulako.eskerrak zure laguntza premiatsuagatik jasotzeko.

Herritarren sustenguaren jasotzeko:
-Ipar Euskal Herria: Crddit Mutuel: 15999 02277 00050514940 64
-Hego Euskal herria: Euskadiko Kutxa: 3035 0059 81 0590071330

Gure Lokala

Golizetek lorrats... Beti euskarciz
GYRE iRRATiA
Zure Irratia 105.6 90.5 FN1



# ZOZOAK BELEARI...



|||~11111111111"liki

Ainhoatxo...

Munduan ez omen dago guztiok gu bezala bizitzeko baliabide nahikoa.. Hori diote batzuk

Nik ezingo omen nizuke eskutitz hau intemetez bidali Algezirazen erortzen diren magrebiek egunero gu bezala koadro gorri-zurizko mantelaren gainean babarrun gorri plater bero bat izango balute. 14:00tan eta 20:00tan.

Hau entzutean, isildu egiten naiz. 'Gustilloa' hartu baitiot nora beharrean nori deitzen ari naizen jakite horri eta erantzuten duenari "nun zaude?" galdetzeari; ez baitaukat gogorik berriz ere kartazala ixtean mingainean geratzen den kola zapore nazkagarri hori dastatzeko... Egia esan, batzuetan gustatu ere egiten zait horrenbeste kritikatzen dudan gure euro-mundutxo aberaskilo hau.

Ixilik jarraitzen dut, baina berotuta eta tristetuta, entzutean 2018an berriz ere ilargira goazela eta bertara joateko milaka milioi dolar xahutu behar ditugula.

Irakurri dituzun 5 hitz bakoitzeko haur bat hil da gosez munduko txokoren batean. Ilargia zapaltzeak zenbat ume balio dilu??

Martitzen bizitzarik ba al den jakitea garrantzitsua al da Zambian bizitzerik ez badago??

**«Batzutan gustatu egiten zait gure euro mundutxo aberaskilo hau»**

AMAIA

**«Azken asteotan ez dut mundu hau gustuko izateko animorik»**

A1NHOA

Ostraz Amaia!!

Bilboko kea izango ote da horrelakoak idaztera bultzatu zaituena?

Internetek jan omen digu burua askori; Algezirazen bitartean ez daukate zer janik. Mugikorren mugimendua atsegin duzula diozu. 'Gustilloar ere aitatu duzu, eta harro itxuraz. Kartazaletan mingaina pasatzea txikitan gustatzen zitzaidala gogoratu dut orduan Amaia. Orain ordea, zuri bezala, begiak azkar itxi eta aajj!!! handi bat egiteko gogoa ekartzen dit.

Ez zaitut guztiz ulertzen Amaia, baina inbidia apur bat ere ematen didazu. Azken aste honetan ez dut eta gure mundu hau gustuko izateko beste animu.

Batzuk 'ilargian' edo ilargiarekin pentsatzen dauden bitartean, beste batzuk udalekutako aspaldiko lagun bat kartzelan torturatua izan dela jakiten baitugu tarteka.

Urrutira begiratu, eta errazago izaten da dena.

Mundua gaizki doa bai, baina aukera dugu eta bizi gaitezen gu ondo, ezta? Gezurra dirudi. Komunikazioa omen da gure arma, baina elkarrekin komunikatu beharrean, martzianoekin berbetan hastea interesatzen zaigu.

Amaia, zure azken galderari...zer esan. Martitzera doan horrek, jakingo balu Zambia non dagoen...

LEGElk faq.,DE ivid\co, elaqt\r",
LEGEA Arlut-ENIAK ?M'ErTEKO DELA rakH,Az7¯u GME

‹cirriarlx)

## Saminez

Azken Barren-en Elgoibarko Ezker Abertzaleak sinatutako gutuna ageri da Jaime Arreseren hilketa "azaltzen" eta Barren-i kontuak eskatzen. Hilketak eragindako sufrimenduarekin nahikoa ez bagenuen, orain, 25 urteren buruan, egin den oroitzapen keinu bakarra gaitzetsi eta justifikaezina justifikatzeko ahalegin iraingarriekin dator.

Maltzurra da Jaime Arreseri zuzenean leporatzeko modukorik ezin aurkitu, eta garai horretako hainbat gertaera larri, Burgoseko prozesua eta Txiki eta Otaegiren erailketa besteak beste jasotzea, nola edo hala arduraren bat eskegi nahian.

Gutunak sumindu egin nau erabat. Zaila da sinestea bere larruan sufrimendua eta mina ondotxo bizi izan duen eta bizitzen duen jendeak, nola egin ditzakeen horrelako gauza zitalak. Are gehiago harria jaurti eta aurpegia nola ezkutatu duzuen ikusita.

**JUAN JOSE ARAOIAZA**

## Elgoibarko Ezker Abertzalearen desgrazia

Historia manipulatzearekin obsesionatuta bizi da borreroa. Berak erabaki du nor biziko den eta nor ez, eta ondorioz, hilketaren justifikazioa funtsezkoa da. Elgoibarren eraildako Angel Berazadi, Anselmo Duran, Jaime Arrese, Jose Exposito, Patxi Zabaleta eta Sebastian Azpiriren izenak iragarritako sarraskiaren herriko kronikaren osagai dira. Garbiketa ideologikoa gauzatzeko ezinbesteko urratsalc Jakina, ez zegoen beste aukerarik. Eta hortik aurrera historiaren erabilera interesatua, eta komeni den tokietan ahaztura. Belaunaldi berriek ezin dute gertatutakoa ezagutu, eta kasualitatez horren berri izaten badute, adibidez BARREN-ek kontatzen duelako, gauzak komeni diren modura berriz kontatu beharra daude. Horrelakoa da borreroaren egia historikoa. "Una, grande y libre".

Asko kostata, 25 urte beranduago, eman zaigu jakitera zergatik erail zuten Jaime Arrese; alkate "frankista" eta "faxista" izateagatik. Adibidez, garai berean alkate ziren Jose Luis Elkoro edo Imanol Murua bezain "frankista" eta "faxista". Salbuespen batekin, gure aitaren kasuan, norbaitek erabaki zuen ez zuela bizi izatea merezi. Eta jokaidia borobiltzeko, zuei egokitu zaizue elgoibartarren aurrean heriotz zigorra justifikatzeko mandatu historikoa. Ez duzue lan makala.

**JAJME ARRESE ARAOLAZA**
**FRANCISCO ARRESE ARAOLAZA**

## Bezeroenganako arreta

Gipuzkoako Kutxak bulego berria ireki du Elgoibarren eta bere bezeroenganako arreta hobetu beharrean, txartu egin da. Lehen lau leihatila zeuden arren, hilabeteko zenbait egunetan jende mordoa pilatzen zen bulegoan, ilara izugarriak sortzen ziren eta itxaroten egon beharreko denbora luzea zen.

Orain, egoera hori hobetu beha-rrean, gauzak okertu egin dira: bi leihatila bakarrik daude eta operazio gehienak kutxazainean egiteko eskatzen dute. Langileen ordez makinak jarri dituzte, eta orain makinekin lan egiten ikasi behar dugu.

Ez al dira konturatzen gure dirua-rekin bizi direla? Eta ez al dira kontu-ratzen jende asko ez dela diru kontuak kutxazainean egiteko gai?

Joan zen astean ordu erdi baino gehiago egin nuen ilaran zain; nire lan orduetan, noski, Kutxak ez baitu arratsaldez lan egiten. Posible al da? gure diruarekin zer egin, nola egin eta noiz egin esaten digute. Ez al dira konturatzen jende askok lan egiten duela eta ezin duela goizez Kutxara joan?

Garai batean hiru bulego zituen Kutxak Elgoibarren, orain bakarra, eta bi leihatila bakarrik.

Bezeroenganako arreta gehiago zaindu behar da, azken finean, bezeroen diruarekin bizi dira-eta!

**A.A. M8255693G**

### OKERRAK ZUZENTZEN

Akats bat dela eta, joan zen asteko erretratu zaharrean Juanita Garai hilda zegoela jarri genuen. Barkatu hanka sartzea.

>|< BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zkia. 1

b arren

LAGUNTZAJ!EA El9olcul3 U.101,1 KAZETAAIAK rt.11rlcu PuswiTATEA NusKumbadu,
KOIASCAMMEAK 4i.tsn Arxrkar M■vi C121, ,o, Jwr.Sa Gc•orrco Pmua G2,,rtrzli..91. •21:n2•1
lonorryyr k•sry, Wrzr•1 W11:11:11.1[1:19(1, MoVrdibil Af, OCkla MC1den Oinzubel ikxm tro, Kokce111.1.14.1.0.2, llrcd
Alot7 ESAEM ~./1 GDeon Gorcrerr, G:rtu TRADA 4410 ele 1.1Ge GoRivQ41A 5S-1038.92 ISSN 1139 1855

I'DANOBAT ti/GOITI GRUPO DANOBAT 1111:1ITA Kondia

AriVararloolen. ff; ELGOM150 IZARRI

Elgo,barko Udaluk Euskr Jourionizako Kultuia SarloA efa Forli Aldond■oic druz laginciulako alcilzkono

## KEXAK

• Santa Klarako bizilagun batek esan digunez, azkenengo asteburuetan ume batzuk Santa Klarako mojen konbentuko kanpaiari harriak botatzen dizkiote: "Azken asteburuetan herriko 20 mutil-koskor Santa Klarako konbentuko kanpaiari harriak botatzen aritu dira dibertsio gisa, eta bertako loratégia zapaldu eta izorratu dute. Ez dut ulertzen zein motatako heziketa jasotzen duten gaur egungo umeek, eta beraien gurasoak non egoten diren honelako ekintzak burutzen dituzten bitartean. Denbora pasatzeko mila modu daude.".



• Herritar batek baino gehiagok esan digutenez, Elgoibarko kaleak euria egiten duenean oso labainkor jartzen dira: "Euria egiten duen bakoitzean beldurrez ibili behar izaten dugu, herriko kale guztiak oso labainkor jartzen baitira, eta lurrera noiz eroriko garen pentsatzen ibili behar izaten dugu. San Frantzisko kaleko baldosak oso arriskutsuak dira, King-Kong azpia eta Urasandira doan zubia ere bai. Joan zen astean neska bat Pedro Migel Urruzuno kaletik King-kong-era doan aldapan erori egin zen. Udalak zerbait egin beharko lukeela uste dugu.".

## TXALOAK



• Herritar batek Bernardo Ezenarro kalean errotonda egin izana txalotu nahi du: "Bazen garaial Akaso ez da hau herriko tokirik txarrena, boina zenbait ordutan trafiko handia pilatzen da hemen ere, eta errotondak izugarri arinduko du hau. Madalako errotondarekin ere gauza bera egin beharko fitzateke, denborak erakutsi du bi zatitan egindako errotonda hori ez dela batere egokia".

• Eskubaloi zaletu talde batek Jabi Agirre txalotu nahi du Sanlo Eskubaloi taldeko presidente izan den lau urteotan jasan behar izan dituen barre eta negar guztiengatik: "Aupa presil".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** banenTelgoibarkcizan-acern
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
w 943 74 41 12


arkhiru arkitektoak
XIXILION 2, behe solairua 51q 11_ 01[51 teif 943 7,43i45



# URRUZU JOREN ℓtona

## Gaua da

Gaua da. Ohean etzanda zaude. Iratzargailua bihar esnatzeko jarri duzu. Liburua eskuetan, orduerdiko eskapada, eguneroko ihesa. Logureak indarrak lapurtzen dizkizun arte. Astuna sentitzen duzu burua. Argia itzali eta honek begiak isten dizkizu. Gogoratzen al zara olatuak non amaitzen diren? Haitzetan. Itsasoari begira egon zinenekoa datorkizu burura. Olatuek haitzen kontra bortizki nola jotzen zuten begira. Haien pazientzia miresten zenuen, apurka-apurka eta etengabe, haitz sendoak hondar ale nimiñoak bihurtuz. Olatu bat egun bat bezalakoa dela otutzen zaizu, indartsu hasi eta ezinbestean amaitzen dena, etsita, korrontearen mende geidituz. Olatua erortzean bezain astuna sentitzen duzu burua. Ez daukazu borrokarako indarrik. Ezintasunezko korronte gozo batean murgiltzen zara. Murgiltzen. Ezintasunean. Lo.

*Irligo Ofaño*

## ZORTZIKO TXIKIAN



### BORJA MOVELLAN

MOVELLAN SUKALDE ETA BAINUAK

**Biziko al zinateke 30 $m^2$-ko pisu batean?**
Pertsona bakorra eta denbora tarte baterako, bai. Estilo mmimalista eta modemoan dekoratu beharko nuke.

**Nola apainduko zenuke bainugeia?**
Egin nahiko nukeena eta egin dezakeclana bi gauza ezberdin dira. Txikiak eta argitasunik gabeok dira bainugela gehienak. Ahal banu kolore argiak eta berotasun sentsozioa ematen duten zurezko detaileak erabiliko nifuzke.

**Sute batean zer salbatuko zenuke etxetik?**
Familio ateratzearekin nahikoa da.

**Etxetresnetan asmakuntzarik handiena?**
Indukzio-plaka. Telebista, berriz, txorreno eta erabiliena.

**Etxeko ianik nekagarriena?**
Planfxatzea.

**Zer ezin da falta zure hozkailuan?**
Jogurtik falta ez dadila! hiru ume clituf etxean,,,

**Zer "erreformatuko" zenuke zure gorputzean?**
Ezer ere ez. Norbere itxura izakerare.kin estuki lotutca dago.

**Proiektu eta erreformak egiterakoan bezeroaren izakera kontutan hartzen al duzue?**
Noski, bestela jai dugu! Daraman bizimoduak, bere gustuek... zeresan handia dute.

## komikia

*javt; Corfrittro*




***KoAve* 037**

# AKORDATZEN NAIZ



## JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

## «Familixia, lana, soldadutzia»

BBV gaiñian bizi gera. Hortxe jaixo nitzan, eta oindiokan ere bertan bizi gera. Gure aitta arotza zan, *Leandro arotza* izenez ezagutzen zeben, eta guri ere, hiru anaixori Leandro deitzen ziguen. Ondoren etorri zan laugarrena, 'el tardio'. 11 urte kentzen diodaz nik hari. Lau anai izan gera, danak mutillak, eta ni hirugarrena nitzan. Gure aitta gogorra izan da. Guri gogor egin zigun beti. Hala ere, etxian ondo konpontzen giñan, familixa danetan bezela izaten genduzen hasarriak, baiña hori normda da.

13 urte ingurura arte ibilli nitzan eskolan, eta gero lanian hasi nitzan, *Alcorta y compañia* enpresan hasi nitzan. Bertan lau urte egin nittun, eta gero Jose Leonenian hasi nitzan. Handik Sigmara, eta, bost urte pasau ostian, Danobatera. Han, jubilatu arte egin naban lana. Gure gazte-denporan lan asko zaguan. Lana asko, baiña dirua urri. Etxian bihar izaten zan diru asko, eta ez gendun asko irabazten.

Ez naban soldadutzarik ein. Tuberkulosis gaixotasuna eduki naban. Soldadutzura jun baiño sei hillabete lehenago gaixotu nitzan. Lehen, gaixotasun honekin jende asko hill egitten zan. Nik suertia eduki naban. Orduantxe zaguan penizilinia etarata, baiña oindiokan oso garesti. Ni jaixo nitzanian merkaiu beltzian billau bihar zan. Gerora ipiñi zeben farmazixetan, eta aitta juten zan billa. Eskerraki Gaixuak tribunala pasau bihar izaten zaban. Donostiako ospittal militarrian egin nittun 15 egun, eta "inutil totar nitzala esan zien. Orduan "inutil total" tituluarekin etorri nitzan etxera, eta pozik gaiñeral Hartu titulua, efri lehenengo trenian etorri nitzan etxera.




# [GURE BERBAK]

## Esapide adirrgarTixak (7)

[:„Ii' ' • ɹɹrkuan ere. tlikarrizke..• • . 1..:, ..- ' uhi doguzen id&eri indar –· ¦ gat; 1.2nixago ematek 041 baiixo dabenk ez dago dudarik. Ia, b indar gehixago hartzen daben esapidiok gu

*Patxi Manakin ezkondu bihar dala entzun ionat. - Akria edarra don, ba, hori!*

*- Ez idak adarrik jo! Hau dok, hau, adarra jotzeko makiñia!*

*- Kaikua halakual Etxuat ikusi gizon hori baiño aldrebesagodkani*

*Hori dok etxe zaharra erosi dokenal Efertzito oso bat ere kabitzen dok!*

*- Ha ze sagar aliak ekarri dittuan azokara Berdungo andriaki*

*- Arrastorik ere erwauat hartzen mutill fronii Etxuat iñola ere entenditzen.*

*- - Esan diot aufferanizian hatakonk ez aittatzeko. - Ez alperrikt*

*- Goiz bat ez dok aguaniatzen lanian. Arreglauta hago zortzi ordu egitteko!*

*- Ni aldrebesa izango nok, baña heu ere.„ anerako parezido!*

*- Hik ezetz esaten dok, baiña politt askua dok ume hori?*

*- Gurasuak jakoz mutil-kozkorran; eta horrek jakak oiñ atanamentuat*

*- Jalŕn, umiak ez dake barren iñun iolasian egitteko lekunkan!*

*- Goiz guztia egon gaittun zain. Ez don belakuan etorri?*

Jesus Mati Makazaga



CD 4naczy.4 ?343

taberna

San Frantzisko, 60
tel.943 74 19 43



)NTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 . 3.sotaa. 17 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNffATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

MERKATU PIAZAKO TELEFONO KABINA

# AIRE LIBREKO LOKUTORIOA

*Ez dakit inoiz ohartu zareten Merkatu Plaza kanpoko telefono kabina beti dagoela okupatuta. Nork esango luke sakeleko telefonoaren aroan, segapotorik ez daukana extraludartzat hartzen dugun garaian, ezta? Ohlkoa da dlogun kabina ondotik pasa eta ezagutzen ez dugun hizkuntza batean jendea entzutea, mila kolore eta jatorritako bezeroak baititu. Etorkinek beren familiekin berba egiteko darabilte kabina. Elgoibar inguruko herri askotan ireki dituzte lokutorioak (Azkoitian duela gutxi ireki dute), baina Elgoibarren Merkatu Plaza kanpoko kabinak egiten ditu aire libreko lokutorioarenak. Elgoibar eta mundua lotzen dituen haria da.*








ADA EVANS SALVATIERRA

**6** hilabete daramatza Elgoibarren. Bolivian lau seme-alaba laga ditu eta haiei dirua bidaltzeko eta han duen zor bat ordaintzeko etorri zen hona. Etxeak garbitzen eta nagusiak zaintzen egiten du lan ahal duenean. Bolivian granja batean egiten zuen lan, ogia egin, sukaldan... denetarik egitea egokitu zaio. Esan digunez, Bolivian oso egoera b<arra bizi dute eta hemen irabazitakoarekin lau seme-alabak mantendu ahal ditu. Ez dauka ez senarrik, ezta bikoterik ere, eta alaba zaharrena arduratzen da besteak zaintzeaz.

Santa Kruz prabintziako herrixko batekoa da eta Elgoibar oso gustuko du. Jendeak ondo hartu duela aitortu digu eta hemengo bizimodua gustafzen zaiola. Hala ere, bere asmoa ahal duenean BolMaru itzultzea da.

Kabinatik deitzen du askoz merkeago ateratzen zaiolako. S euro balio duen txartel batekin ordu erdi luzez hitz egin ahal du seme-alabekin. Elgoibarren lokutorio baten beharra dagoela iruditzen zaio.

ARMINDAJUSTINIANO

dotivia

Arminda duela urtebete inguru atera zen Boliviatik, eta bost hilabete inguru daramatza Euskal Herrjra. Eibar, Ermua eta Elgoibur inguruan bizi izan da, hiru herriak tartekatuz. Hona etorri aurretik Murtzia eta Extremadura aldean ibili da. Bi seme eta ilobak Bolivian lagata etorri zen. Hirugarren seme bat berarekin etorri zen, eta Murtzian bizi da. Bertan egiten du lan eta Armindaren asmoa Gabonetarako Murtziara joatea da. Semeak lan egonkorra dauka Murtzian, eta berak ere han topatuko du lanen bat. Hemen etxeak garbituz eta nagusiak zaintzen egiten du lan, baina Murtzian egon zenean nekazari lanetan aritu zen. Bolivian dituen seme eta bilobak ere Murtziara erannatea da bere helburua familia guziia elkarrekin bizitzeko.

la egunero deitzen du bere herrira familjakoekin hitz egiteko. Batzutan Eibarko lokutoriotik deitzen duela esan digu, baina normalean kabina erabiitzen du merkeago ateratzen zaiolako. Bost euroko txartel batekin ordu erdiz hitz egiten du. Gustura dago hemen, baina bere burua Murtzian ikusten du etorkizunean, bere familiakoekin.






ROSIA.S SANDA

,rnania

Urtebete inguru darama Rostas Sanda emakume errumaniarrak Euskal Herrian. Bere senarra eta semeekin bizi da gaur egun Elgoibarren, baina Errumanian duten familiakoekin hitz egitea gustatzen zaio ahal duenean. Hauek ere Merkatu Plazako telefono kabina erabiltzen dute deia askoz merkeago ateratzen zaielako.

Beraiekin hitz egiteko zailtasunak izan ditugun arren, bizitza hobeago baten bifa etorri direla ulertu diogu.

Bere semeetako bati begi bat falta zaio, eta ospitaletik deitzeko zain daude. Hizkuntzarekin arazoak diiu eta lana topatzea kosta egiten zaio. Gaurkoan familia osoa aurkitu dugu telefonoz deika. Txandaka hitz egiten dute guztiek Errumaniako senideekin. Elgoibarren oso gustura daudela esan digute.

## PROTAGONISTA



### Arn a l doOtegi

Espainiako Auzitegi Gorenak urtebeteko espetxe zigorra ezarri dio Arnaldo Otegi Batasunako mahaikideari, Espainiako Juan Carlos I. erregea "torturatzaileen burua" zela esan zuelako. Hala ere ez du espetxera joan beharko. Ebazpenaren arabera, Arnaldo Otegik adierazpen askatasunaren mugak gainditu zituen eta epaileak hori delitua dela erabaki du. Jone Goirizelaia defentsako abokatuak sententzia errekurrituko du. Aurrez, Euskadiko Auzitegi Gorenean Arnaldo kargurik gabe utzi zuten auzi honengatik, Auzitegi honen ustetan deliturik ez zegoelako.

## NOTIZIA

# %3,3 igoko dira Ordenantza Fiskalak 2006. urtean

Udal Plenoak aho batez onartu zuen datorren urterako Ordenantza Fiskalen igoera. Urteko Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) kontuan izanik, %3,3ko igoera izango *da.*

**Zaborra %4,3**

Zabor tasa izango da Udal Plenoak adostutako igoera baino handiagoa jasango duen bakarra, %4,3. Debabarrenako Mankomunitateak ezarrita, %17,38ko gorakada jasan zuen iaz zaborrak. 2006an ere, Udalak proposatutakoaren gainetik egongo da, eta diferentzia hori Udalak ordainduko du. Bestalde, herriko komertzio txikiari bultzada emateko dendetako eskaparate tasa kendu egingo da.



Plenoan, bestalde, EAJk emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako mozioa aurkeztu zuen, eta alderdi politiko guztiek onartu zuten. EAk eta PSHEek, Saharako bizilagunak jasaten ari diren egoeraren aurkako mozioak aurkeztu zituzten, eta hauek ere aho batez onartu ziren.

1111TTAKIA

**17**

2006rako aurrekontuak kontuan izanik, Gipuzkoako herrien artean 17. postuan dago Elgoibar. Datorren urtean 5.405.000 euro jasoko ditu Foru Aldunditik, aurten baino %4,62 gehiago, hain zuzen ere. Aurretik dauden herrien artecrn, Donostia, Eibar, Arrasate edo Azpeitia aipatu daitezke.

asteko [ ARGAZKIA ]



Astebetean uda giroa izatetik termometroak ia gradurik gabe ikustera pasatu gara. Hotza etorri da gure artera, eta negua gainean dugula dirudi. Neguan herriko kalean falta ezin den elementu bat atera dugu aste horetako argazkran: gazfaina saltzailea. Hotz giroan eskuak eta barrena epeltzeko jaten ditu jendeak gaztainak. Askok, gustatu ez arren, patrikan sartzen ditu kanpoko hotzari aurre egiteko. Bukatu da beraz, uda. Neguko janiziei hautsa kendu, eta ondo jantzita atera kalera aurrerantzeon.

# 2006ko otsailerako merkadilloa Sigman jartzea aurreikusten du Udalak




Aste honetan hasi dira Sigmako aparkalekua egiteko obrak. Aikia .L enpresa izango da obra hauen arduraduna, eta bi hilabete eta erdiko epea dauka obrak amaitzeko. Hau kontuan izanik, datorren urteko otsailerako, ostegunetako merkadilloa Sigman jartzea aurreikusten du Udalak. Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkateak esan digunez, "obrak aurrera joan ahala zehatzago esatea izango dugu, baina gure asmoa 2006ko otsallerako merkadilloa Sigman jartzea da".

Bi solairutako aparkalekua eraikiko dute Sigman, eta ostegunetan beheko aldea merkadilloa egiteko erabiliko da. Marivi Ag irreg omezkorta ren esaneta n, "hasjeratik mantendu dugun posturari eusten diogu, eta gure ustez Sigma da merkadifloa kokatzeko tokirik onena".

## Saltzaileak kontra

Rauf Argaiz merkadilloko saltzaiteen bozeramailearekin hitz egin dugu, eta berak esan digunez, "3.356 herritarren botoa daukagu. Horiek merkadilloa herrian nahi dute, eta horren alde borrokan jarraituko dugu. Gu ez gara industria, komertzioa gara, efa komertzioa herri erdian egon behar da".

## Urrezko Kaiku saria ennan diote **Mauxibwri**




Mauxitxa baserriko Jesus Ansola eta Rosa Mari Salegik unezko kaiku saria jaso zuten joan zen asteartean Zumilz Artzai Elkartearen eskutik. Sari honek urteko jarduna saritzen du, eta aurtengo gazta kanpainan elgoibartorrak nagusitu dira. Mauxitxako gaztak zortzi lehiaketatan lehenengo saria lortu du 2005ean, beste baten bigarren gelditu da, eta bi aldiz hirugarren saria lortu du. Debako Soro Fefia Eguneon irabazi zuten urteko lehenengo lehiaketa, eta handik aurrera sariak pilatuz joan dira Mauxitxako gaztagileak. Aipagarriena Ordiziako gozta lehtaketan tortutako txapela izan da. Zorionak!

## MOTZ-MOTZIAN

### Gurutze Mugerza Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Hilobete honetan Gurutze Mugerza izan da BARRENeko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Debako Kresala Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuka irabazi du Guruizek. Zorionak! lehtaketa honetan parte hortzeko BARRENen asero iartzen dugun galderari boi ala ez erantzun behar zaio. Erontzunak sms bidez bidali behar dira 7505 zenbakira, eta hilabete amoieran parteharizatle guztien arfean zozketa egingo da.



### Gipuzkoako gaixo eta ezinduen bilkura

Dotorren igandean, azaroaren 13an, Elgoibar, Azpeitia, Azkoftio, Zumaio, Zarautz, Orio, Getaria eta Zestoako gaixo eta ezinduak bilduko dira Elgoibarren. Guztira 100 lagun inguru bilduko dira. Eguerdiko 12:00etan mezo izango dute Son Bartolome Parrokfan, eta ondoren bazkaria egingo dute Sigma jatetxean.

### Barreterapia

Datorren igandean, azaroaren nan, barreterapta saio berri bat izango da Aubixan. 8i saio egingo dira, bota goizeko 10:00etatik 14:O0etaro eta bigarrena, arratsaldeko 16:30etik 19:00ak arte. Barreterapian parte hartzeko edo informazio gehtogo nahi izanez gero, 943 74 17 15 telefonarci deitu daiteke.

**Araba eta Lleidako familien ondoren, gipuzkoarrak gara gehien aurrezten dugunak, soldataren %20a.**

# claukci7u ellrun nurrezteke

**ANTONIA VARGAS**
Sukaldari laguntzailea
**52 urte**



fos Bai, lehen behintzat aurrezten nuen, orain gero eta zatlagoa da. Euroarekin aurreztea ia ezinezkoa da. Hilabete amaieran kobratzeko eguna intsi zain egoten naiz."

**J. INAZIO TRECET**
Komertziala
**40 urte**



"Bai, ohitura oso ona da eta ahal dudan neurrian aurrezten saiatzen naiz. Ez da erraza, baina oreka bat aurkitu behar da, ezin da irabazitako guztia gastatu."

**JOSE MONTERO**
Igeltseroa
**27 urte**



"Bai. Hilabetero saiatzen naiz diru apur bat aurrezten, baina oso zatla da, bizimodua garesti dago. Edozein gauzatarako ondo etortzen da dirua aurreztea."

**MERCEDES REY**
Etxekoandrea
**36 urte**



Bat, saiatzen gara dirua aurrezten. Edozein ezustekori aurre egiteko dirua aurreztea beharrezkoa da. Ez da erraza gaur egun dirua aurreztea, baina ahalegintzen gara."

## [ BAI EZY

## L•rtuko al du Clementek Athletic zulotik ateratzea?

**BA1 %79**

siBC1i, b mina aurrez sufritu dezatela piska bat Athletik zaleek, ia horre a harrokeria guztiak ahazten dituzten. Eta Clementek zulotik ateratzen ez baditu ere, ikuskizuna ez da faltako. "

**EZ %21**

"Ez, arazoa ez da entrenatzailea, ekipoa baizik. Beste taldeetan mundu mailako fitxajeek jokatzen dute, eta Athletiken Euskal Herri mailakoek bakarrik. Konpetentzia oso gogorra da.""

Datorren asterako.... Gipuzkoako odol bankuak %4an egin du behera 2005ean.

Odol emaiiem 7(ryrra

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

75 1 zenbakira

SMS kostucr 0'90 ^. • B E Z.

Gabi

J a te )( 4 -

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu
**Gabi jatetxean.**
Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!



Maddi Arrieta Arrizabalaga
[ Urriak 1 ]
Ales eta Amaia



izan Fernandez Rodriguez
[ Urriak
Jefferson eta Ohiana



Ander Garcia Olivares
Urriak 12]
F. Javier eta Amaya



Nerea Artebce Ortiz de Urbina
Urriak 30
Jose Manuel eta Idoia



**Malen Etura Gonzalez**
[ Urriak 28
Roberto eta Ainhoa

Bidatz Agirre **Peñagarikano**
[ Urriak 91
Pedro eta Idoia

Alejandro Rodriguez Soliz
Urriak 17 ]
Jose-Usen eta Maria-Rosmina

Janire Saizar Rejas
Urriak 27
Xabier eta Isabel

GaizkaMendieta Eizagirre
[ Urriak 29 ]
Fernando eta Maite

## H I LDAKOAK

Sabin larreategi• [ • Urriak 8
Severina Martin• [ • Urriak 13
Paco Sancher 1 • Urriak 15
Ignacio Ormaerxeci• [ • Urriak 16
Manuel Diaz• • Urriak 17
Lucia Aizpuru• [ Urriak 26
Berta Arregi• [ • Urriak 28

## EZKONTZAK

**Ramon Aranburu era Maria Arrizabalaga**
**Iker Tapia era Aurkene Olaizola**
**Javier** Martin eta Vanesa Chaparro [
**Jon Muguruza** eta Maria **Teresa Iriondo** 1


..EZEBERRIA

Hileta zerbitzu
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



*KUTXAK*
*TRASLADOAK*
*KOROAK*

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01


Atal ilonetan zuen seme-alabct jaioberriaren crigozkio jortzeo nohi izclnez g, o, cleitu BARREN astekorira **943 74 41 12.** telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkolzarra.com elektion i kora.

## Gabonetako Ipuin Lehiaketa

Euskarazko XI. Ipuin Lehtaketan lanak entregatzeko azken eguna azaroaren 30a izango da. San Jose Ikastetxeko ikasleei eta Debabarrenako ikostetxeetako D.B.H.ko ikasleei zuzenduta dago lehiaketa, eta honako helbidean jasoko dira idazlanak: Mendaroko Udala (Kultura Saila) Herriko enparantza Izkia. - 20850 Mendaro. Sari banaketa abenduaren 23an, arratsaldeko 19:00etan izango da Udaleko Udalbatzo aretoan. Irabazleentzako diru sariaz gain, partaide guztientzat oroigariak banatuko dira sari banaketa egunean. Inforrnazio gehiago Kultura Soilean.

## "Esaidazur non izan **zaren**

Mendaroko herritan-ek jendearekin egindako bidaiak (oporrak), partekatzeko "Esaidazur ekimena antolatu du In Leike Elkarteak Udalaren laguntzarekin. Kafe solasaldiak antolatzeo da ideia, diapositibak proiektatu eta argazkiak erakutsi ditzaten. Proiekzioak ostiral arratsaldetan izango dira Udaleko areio txikiren batean. Edozein eratako bidaiek balio dute: hondartzako egonaldiak, Himalaiako trekkingak, e.a. Informazio gehiago edo parte hartzeko deitu 943 033282 telefono zenbaldra.

PEDIATRIA ZERBITZUA MARTXAN DA

# Astean behin zabalduko du kontsulta pediatria zerbitzu berriak

Pediatria zerbitzu berria du Mendarok. Frontoiko absidea egokitzeko obrak amaitu ostean, bertan dago herritarrentzako zerbitzu berria azarotik aurrera. Hasiera batean, astean behin zabalduko du kontsulta pediatria-zerbitzuak¡ halere, erabiltzaile kopuruaren arabera, beharrezkoa balitz beste egun batzutan ere irekiko litzateke kontsulta. Kontsulta ez da urgentziei erantzuna emateko sortu, baizik eta ohiko azterketak egiteko edo aurretik hitzordua hartu clutenei arreta eskaintzeko.



## "Mintzalaguna" ekimena abian da



Azaroarekin batera hasi zen Wintzalaguna" ekimena Mendaroko Udalak eta "In Leikel antolatuta. Uda bitartean astean behin ordubetez euskaldun zahar eta euskaldun berrien topagune izan nahi du ekimenak. Oraingoz, lau euskaldun berrik eta bederatzi euskaldun zaharrek eman dute izena, azken hauek astero txandakatuko direlarik. Beste norbait animatuko balitz, izena emateko edo informazioa eskatzeko besterik gabe, honako telefonora dei egin dezake: 605 754 017



kLIK

**100 pisu eraikuntza prozesuan**

Mendarok etengabe hasten larraitzen du. Une honetan 100 dira eraikuntza lanetan dauden pisuak. Hauetatik 49 Garagarza auzoan, 20 pisu Jose Maria Linazasoro inguruan eta azken 26ak tren geltokiaren parean eraikiko dira.



## ANTON URREISTI

Margolana

# «Pozik nagoenean urdinera jotzen dut eta beltzera goibel banago»

*Margolari autodiclakta, bere margolanekin egiten duen seigarren erakusketa da honakoa Anton Urreisfirentzat. Mutrikuarra jaiotzez, duela* **5** *urtefik bizi da Mendaron. Errealismoa atzean laga eta bere estiloak izan duen bilakaeraz labetu ahal izango dute asteburu honetan eta datorrenean Udateko Otaerre aretora hurbiltzen direnek.*

**• Zer aurkituko dute erakusketara hurbiltzen direnek?**
Margolari gisa azken urtean izan dudan bilakaeraren lekuko izango dira. Konpara ditzaten, lehen eta oraingo koadroak jarri ditut. Errealismoa alde batera laga eta beste estilo batekin esperimentatzen nabil. Erreafismoa derrigorrez pasa beharreko iraganbidea izan da nagoen lekuraino iristeko.

**•Zertan aldatu da zure estiloa?**
lehen argazkiak atera eta detaile guztiak koadrora pasatzen nituen. Orain, koloreak buruan gorde eta bozetoetatik abiatuta marrazten dut Espresatu nahi dudanean zentratzen naiz eta soberakinak kenizen ditut la alderantzizko prozesua, hortaz

**•Nolatan aldaketa hau?**
Marrazketa lehiaketetan parte hartzeak ireki zizkidan begiak eta beraietan bilatu dut nire bidea. Aitor Etxeberriaren gomendioei kasu eginez hasi nintzen. Lehiaketetan parte hartzeko, arriskatzeko, esan zidan, nire buruarekin harrituta geratuko nintzela, agian. Eskerrak eman behar dizkiot, bete betean asmatu baitzuen. Harrituta nago kolore gutxi erabiliz atera zaizkidan emaitzekin. Beste mundu bat da.

**•Zein dira darabiltzazun gaiak edo motiboak?**
Atentzioa edozerrek eman arren, batez ere, errekak, zubiak, tren estazioak eta portuak margotzen ditut Mutrikuko portuan jaioa naiz eta itsasoa, ura, beti daude present, nire bizitzako parte dira-eta. Ingurune industrialen kontrasteek ere asko erakartzen naute, oro har, bizitza mugitzen den lekuek. Argia ere nire koadro guztietako protagonista da: eguneko lehen eguzki izpiek ematen duten argitasun berezia, brurna...

**•Zer koloretara jotzen duzu pozik zaudenean? Eta triste zaudenean?**
Pozik nagoenean urdinera jotzen dut eta goibel banago beltzera. Kolore osa suabeak clarabirzkit orain: urdinak, grisak... Difuminatuekin buru belarri sartuta nabil, sugeritu egin nahi clut, hor dagoela baina ez dagoela adierazi, alegia. Duela urte batzuk kolore fuerteak bakarrik nerabiltzan: gorriak, horiak...

**•Zer da garrantzitsuagoa pinturan; inspirazioa -etorria- ala teknika?**
Dena. Inspirazioa oinarria da, baina pintura sentitu egin behar da. Pintatzean koadroaren barruan sartzen naiz. Egon litezke nire bueltan berrogei lagun nire lanari begira, eta nik neurera jarraituko dut. Neu eta aurrean daukaten neure koadroa bakarrik existitzen dira. Kaskoak jarri eta musika entzunez egiten dut lan beti. Musika klasikoa edo heavya berdin erabiltzen ditut. Lehiaketa batzuetan "Koma" entzunez lan egin izan dut.



«Musika klasikoa zein heavya entzunez margotzen dut»



ga.ia.

# ARIMA BELTZA

## Mundaralro *ateak* zabaltzen

ELGOIBARKO ARIMA BELTZA MUSIKA TALDEAK DISKO BERRIA KALERATU BERRI DU. *MUNDURAKO ATEAK* IZENA JARRI DIOTE BEREN HIRUGARREN DISKOARI, ETA AURREKOAN BEZALAXE, ROCK ESTILORANTZ JO DUTE ORAINGOAN ERE, BLUES-A ALDE BATERA UTZI GABE NOSKI. NACHO LIBEIM EKOIZLEAREN LAGUNTZAZ, MUNGIAKO LAMINA ESTUDEOAN GRABATU ZUTEN DISKOA ABUZTUAN, LORTUTAKO EMAIT7_AREKIN 050 GUSTURA GELDITU DIRA ELGOIBARTARRAK, ETA ESAN DIGUTENEZ, ENTZULEEN PARTETIK ERE HARRERA OSO ONA IZAN DU DISKOAK. ARIMA BELTZAK BERE LOKALEKO ATEAK IREKI DIZKIGU.

Mundurako ateak izena jarri diote disko berriari, eta esan digutenez, beraien doinuak eta rnusika mundura zabaltzea gustatuko litzaieke:nEz litzateke gaizki egongo, gustatuko litzaiguke gure mugak zabaitzea. Mundurako ateak izen zabala da, zentzu aska izan ditzake, eta estetikoki ere joko interesgarria ematen du. Diskoko abesti baten izena da, eta egokia iruditu zitzaigun diskoari izen hori jartzea".

Diskoak harrera oso ona izan du, publikoak Arima Beltzaren lana gustuko duela azaldu du, eta taldekideak oso pozik daude entzuleek emandako erantzunarekin: "Guk daukagun estilo mota Euskai Herrian ez da asko lantzen. Produkzio berria landu dugu disko honetan eta kritika oso onak egin dizkigute".

### Rock doinuen presentzia

